# LAZKAO

| # 15 | 2018 URRIA |

LAZKAOKO UDALA






TRAFIKO KANPAINA URRIAREN 29TIK AURRERA

CAMPAÑA DE TRÁFICO A PARTIR DEL 29 DE OCTUBRE

[ 2-5 ]



ZINEAREN KUDEAKETA

GESTIÓN DEL CINE

[ 10 ]



EUSKARAREN ERABILERA LAZKAON

USO DEL EUSKARA EN LAZKAO

[ 12 ]



**Urriaren 29ko astean trafiko kanpaina berezia egingo da. Besteak beste, abiadura neurtzeko radarrak erabiliko dira.**

Herriko hainbat kaletako zirkulazioaren inguruko azterketa egin zen 2018 urte hasieran. Lan hau, ibilgailu kopurua neurtzeko tresna modura erabiltzeaz gain, ibilgailuen gutxi gorabeherako abiadura tarteak ezagutzeko ere baliagarria izan zen. Esan behar da, datu horien arabera, ipinitako gehieneko abiadura mugak nahikoa ondo errespetatzen dituela gehiengoak. Kontu guztietan bezala, hemen ere badira, ordea, salbuespenak.

Bestalde, abiaduraz gain, badira beste hainbat kontu ibilgailuen trafikoari dagokionean guztiok presente eduki beharko genituzkeenak: Zinturoiaren erabilera, zebrabideak errespetatzea, mugikorrak eta antzekoak ez erabiltzea, autoa espaloi baten gainean uzteak oinezkoari sortzen dizkion arazoak edo sor diezaizkiokeen arriskuak, motorrean edo txirrinduan kaskoa eramatea...

Ez da aldizkari honetarako asmatutako esaldia: abiadura errespetatzeak, edo distrakzioak ekiditeak, bizitza eta heriotzaren arteko muga marka dezake. Neurri horiek herri barruko trafikoan ere garrantzia berezia dute.

Aitortu behar da, une honetan ere, herriko auzo edo gune konkretu batzuetako egoerak, bizilagunen kezkak areagotu egiten dituela. Udala, har daitezkeen neurri ezberdinak aztertzen ari da, egoera erreala ezagutzeaz gain, neurri konkretuen bideragarritasuna eta eraginkortasuna begiratuz.

Normala da, neurri zigortzaileak hartu behar izatea, ibilgailuei oztopoak jartzea, radarrak, semaforoak, gaineko pasabideak...

Tristea bada ere, egia da isuna jartzeko aukerak edo ibilgailuari kalte egiteko aukerak, gure jarrerak aldatzera eramaten gaituela. Ez da, ordea, egia txikiagoa zebrabide edo semaforo bat gorrian pasatzeagatik jarritako isunak ez duela zauriturik sendatzen edo bizitza bueltatzen. Arauak errespetatzea guztion ardura da. Ez ahaztu gaur autoan bazoaz ere, bihar zebrabidean oinezko zeu izan zaitezkeela.

Norabide honetan, egoki ikusi da sentsibilizazio kanpaina berezi bat ere abian jartzea.

Hau honela, urriaren 29tik aurrera trafiko eta ibilgailuen inguruko kanpaina egingo da. Kanpaina honen barruan Udaltzaingoak gauzatu ohi dituen jarduerez gain, oraingoan, herriko kale ezberdinetan, gehiegizko abiadurak neurtzeko radarra ere egongo da.



# Nola jokatzen dut auto barruan?

# ¿Cómo me comporto dentro de un coche?

***La semana del 29 de octubre se llevará a cabo una campaña de tráfico. Entre otras actuaciones, se ubicarán radares de velocidad.***

A principios de este año se realizaron estudios sobre la circulación en varias calles de Lazkao. Este estudio, además de utilizarlo como contador de vehículos, también ha servido para conocer la velocidad media de los mismos. Hay que decir que, según esos datos, la mayoría de los conductores respeta bastante bien los límites de velocidad establecidos. Pero, como ocurre en la mayoría de los casos, aquí también hay excepciones.

Por otra parte, además de la velocidad, hay otros aspectos relacionados con el tráfico que deberíamos tener todos presentes: el uso del cinturón, respetar los pasos de cebra, no usar móviles u otros aparatos similares, problemas o riesgos que pueden acarrear a un peatón que un vehículo obstaculice una acera, el uso del casco en moto o bici...

No es una frase hecha o inventada para esta revista: respetar los límites de velocidad o evitar distracciones, puede marcar la línea entre la vida y la muerte. Esas medidas también son importantes dentro del tráfico del municipio.

Hay que reconocer que, en este momento, la situación de varios barrios o zonas del municipio, aumenta la preocupación de los vecinos de esas zonas. El Ayuntamiento está tomando todas las medidas que están en su mano, estudiando la situación real y estudiando medidas más concretas destinadas a mejorar la viabilidad y la eficacia de las mismas.

Es común tener que tomar medidas correctivas, poner obstáculos a los vehículos, radares, semáforos, pasos elevados... Y, aunque es triste, es verdad que la opción de que nos pongan una multa o podamos dañar nuestro vehículo, nos lleva a cambiar de comportamiento. No es, además, menos verdad que la multa por saltarse un paso de cebra o un semáforo en rojo no cura heridas o devuelve la vida. Respetar las normas es responsabilidad de todos. No olvides que, aunque hoy vayas en coche, mañana tú puedes ser un peatón.

En esta dirección, se ve apropiado realizar una campaña de sensibilización.

Por ello, a partir del 29 de octubre, se realizará una campaña de tráfico y vehículos. Dentro de esta campaña, además de los controles rutinarios que realizan los Municipales, también habrá un radar móvil en las calles de Lazkao para medir los excesos de velocidad.

Orain artekoak oinarri hartuta, eta aipatutako sentsibilizazio kanpainaren barruan, hainbat azterketa egitea beharrezkoa dela ikusten da. Kanpainan hartuko diren neurriek zentzua eta eragina izan dezaten, eta kanpainara bakarrik mugatu ez daitezen, hausnarketa bat eskatzen da.
Bestearen lekuan jarri eta aztertu dezagun:

**Jokabide bera al dut gidari eta oinezko modura?**

- ☐ *Bai*
- ☐ *Ez*

**Isun bat jarritakoan zein da nire lehenengo gogoeta?**

- ☐ *Gaizki egin dut. Arrazoia daukate.*
- ☐ *Aitzakiaren bat bilatzen saiatzen naiz.*

**Arauak errespetatzen al ditut?**

- ☐ *Bai*
- ☐ *Ez*

**Herrian radarrik egoterik gustatuko al litzaidake?**

- ☐ *Bai*
- ☐ *Ez*

**Zein arazo ikusten dituzu?**



## IZAN BETI KONTUAN



- Segurtasun uhala eta umeentzako segurtasun gailuak erabili.
- Abiadura mugak errespetatu.
- Zebra bideetan oinezkoaren lehentasuna errespetatu.
- Aparkatu autoa horretarako dauden guneetan. Auto bat espaloi gainean uzteak edo oinezkoen pasoa oztopatzen duela aparkatzeak, ezindurari pasoa itxi diezaioke edo oinezkoa errepidetik pasatzera derrigortu dezake, horrek izan dezakeen arriskuarekin. Espaloietan aparkatzearen ondorioz sortutako olio orbanak irristatu eta min hartzeko toki aproposa izaten dira.
- Behar duzunean bakarrik hartu autoa.
- Autoa hartu behar duzuenean, abiadura errespetatuz gidatu, eta behar den tokian aparkatzeko behar adina denboraz abiatu.







Tomando como base lo mencionado hasta ahora, y dentro de la campaña de sensibilización, se ve necesario realizar varios análisis. A su vez, y para que las medidas que se tomen dentro de la campaña tengan sentido y no se delimiten al tiempo marcado por la misma, es imprescindible reflexionar sobre el tema. Pongámonos en la piel del otro, y recapacitemos:

**¿Tengo el mismo comportamiento como conductor y como peatón?**

☐ *Sí*

☐ *No*

**¿Qué reflexión hago cuando me ponen una multa?**

☐ *Lo he hecho mal. Tienen razón.*

☐ *Intento encontrar alguna excusa.*

**¿Respeto las normas?**

☐ *Sí*

☐ *No*

**¿Me gustaría que hubiese radares en el municipio?**

☐ *Sí*

☐ *No*

**¿Qué problemas ves?**








## TENLO SIEMPRE EN CUENTA

- Utiliza el cinturón de seguridad y los sistemas de seguridad para niños.
- Respeta los límites de velocidad.
- Respeta la prioridad de los peatones en los pasos de cebra.
- Aparca el vehículo en los lugares establecidos para ello. Aparcar un vehículo encima de una acera obstaculizando el paso a los peatones, puede cerrarle el paso a un minusválido y puede obligar a los peatones a tener que salir a la carretera, con todos los riesgos que eso puede provocar. Las manchas de aceite que se quedan en las aceras a consecuencia de aparcar los vehículos en las aceras, pueden ser peligrosos y propensos a provocar accidentes.
- Utiliza el coche sólo cuando lo necesites.
- Cuando tengas que utilizar el coche, respeta los límites de velocidad, y sal con suficiente tiempo para no tener problemas para aparcar.



# Denon artean zaindu dezagun. Guztion ardura da.

# Cuidémoslo entre tod@s. Es responsabilidad de tod@s.

1992-1993.urtean eskuratu zituen Lazkaoko Udalak Dukearen parkeko lurrak. 20 urte igaro dira parkean oinezko bideak ireki, bertan egoteko mahai eta aulkiak jarri, eta dagoeneko ahaztua dagoen, edo askok ezagutu ere egin ez zenuten, umeentzako jolas gunea egokitu zenetik.
Lazkaotarrek aisialdiaz gozatzeko behar zuen gunea, ordea, bandalismo eta txikizio ugariren lekuko ere izan da urte hauetan zehar. Ezkutuko egoerak eman ohi duen ausardia baliatuz, gutxi batzuen jarrerak, gehiengo batentzako gune deseroso bihurtu du parkea, eta baztertuta geratu da. Aitortu behar da, udaletik parkearen mantenurako egin diren ahaleginak, zainketara bideratutako esfortzuak, eta horietara bideratutako diruak, ez duela emaitza hobetzea lortu.
Txakurrak suelto uzten dituzten jabeen eta txakurrei beldurra dieten oinezkoen arteko arazoak ere ez dira ezkutatu beharreko kontua. Txakurrei beldurra izanik, futbol zelaira oinez errepidetik joan izan diren gaztetxo askoren kasua ere errealitate bat da, errepideak berez dituen arriskuak kontuan hartuta, gainera. Konponbide eta proba modura egin zen txakurrentzako itxiturak ez du, ziurrenik, behar adinako erantzun egokirik izan. Gunea bera mantentzearen egokitasuna ere aztertu beharreko kontua da agian.
Hori guztia horrela izanik, parkearen hasierako ispiritua berreskuratzeko ahalegin berri bat egitea da Lazkaoko Udalaren helburua. Helburu horrek, gainera, Eskolako Agenda 21 proiektuaren barruan San Benito ikastolako ikasleek eginiko lanketa eta eskaerak norabide horretarako babesa eta erreklamoa izan du. Ondorioa nabarmena izan da: parkeak erabateko atontzea eta egokitzea eskatzen du.
Dukearen parkea, Lazkaoko gunerik atseginetako bat da. Lagunekin joan eta mahai inguruan tertulian egoteko, etxeko txikienekin joan eta naturaz inguratuta jolasean ibiltzeko, kirola egiteko, edo banku batean eseri eta lasai liburu bat irakurtzen egoteko, toki hoberik egon ahal liteke?
Argi dagoena da, Dukearen parkea hori guztia egin ahal izateko gune bat izatea nahi badugu, ardura guztiona izan behar dela. Denborak erakutsi du, gehiengoak ardura horri uko egiten badio, berriro ere gutxiengoak deserosotasunez jantziko duela ingurua.
Eman dezagun lehen pausoa. Joan gaitezen parkera. Erabili dezagun. Eta eska dezagun erabiltzeko. Errespetatu dezagun ingurua. Errespeta ditzagun beldurrak, eta errespeta ditzagun arauak. Gehiengoak erabili dezagun egoki. Eska diezaiogun gutxiengoari egoki erabiltzeko.
Denborak erakutsi digu hori horrela izan ezean, udalaren ahalegina ez dela nahikoa izango, eta berriz ere gutxiengoak gehiengoaren aukerak zapuztuko ditu: #erabiliegoki.











*Joan gaitezen parkera eta erabili dezagun. Erabili dezagun arduraz, eta eska dezagun arduraz erabiltzeko.*

El Ayuntamiento de Lazkao adquirió las tierras del parque del Infantado en los años 1992-1993. Han pasado más de 20 años desde que se abrió el paso a peatones, desde que se pusieron mesas y bancos, el parque infantil que pocos recordaran, e incluso muchos no lo hayan conocido.

Pero el espacio de ocio que necesitaban los lazkaotarras, ha sido una zona de vandalismo y destrozo en estos años. Aprovechando la oportunidad que da el parque para actuar a escondidas, la actitud y los actos de unos pocos, han hecho que se convierta en una zona incomoda, y a quedado abandonado. Hay que reconocer que los esfuerzos realizados por el ayuntamiento para mantener y adecuar el espacio y el dinero destinado a ello, no ha logrado mejorar los resultados.

Tampoco hay que esconder los problemas que han surgido entre los dueños de los perros que dejan sueltos a los animales y los peatones que tienen miedo a esos perros. Ese miedo ha llevado a muchos a tener que utilizar la carretera para acceder al campo de fútbol, con el riesgo que ello conlleva. El espacio cerrado que se habilito para los perros como solución y prueba, tampoco ha dado los resultados esperados. Quizá, hay que plantearse estudiar el mismo mantenimiento de la zona.

Tomando como base todo lo mencionado, el objetivo del ayuntamiento es realizar de nuevo un esfuerzo para recuperar el espíritu del parque. Ese objetivo, además, se suma a las peticiones y reclamaciones que el alumnado de San Benito Ikastola realizo dentro del proyecto Agenda 21. Las conclusiones fueron claras: el parque necesita una renovación total.

El parque del Infantado es una de las zonas más bonitas de Lazkao. ¿Qué mejor sitio para sentarse en las mesas y charlar con los amigos, disfrutar de la naturaleza con los más pequeños, hacer deporte o sentarse en un banco y leer un libro?

*Vayamos al parque y utilicémoslo. Hagámoslo con responsabilidad y pidamos que se haga con responsabilidad.*

Lo que esta claro es que, si queremos que el parque del Infantado sea un lugar que permita realizar todas esas actividades, todos debemos actuar en consecuencia. El tiempo ha demostrado que, si la mayoría no actuamos en consecuencia, la minoría volverá a vestir el lugar de incomodidad.
Demos el primer paso. Vayamos al parque. Utilicémoslo. Y pidamos que los usen. Respetemos el entorno. Respetemos los miedos y respetemos las normas. Que el uso que le demos la mayoría sea el adecuado. Pidamos a la minoría que lo utilice de forma adecuada.
El tiempo ha demostrado que, si eso no es así, los esfuerzos del ayuntamiento no serán suficientes, y la minoría arruinará las opciones de la mayoría: #erabiliegoki.

#ErabiliEgoki



Lazkao 8

## Eginiko lanak.

Gauzatu nahi diren lanekin, parkeak berez izan beharko lukeen egoera berreskuratu nahi izan da.

- Hesiak berritu dira.
- Mahaiak eta bankuak jarri diren tokietan zorua atondu da (euria eta lokatza, erabiltzeko arazo izan ez daitezen).
- Parke barruko garai bateko eskailerak, eta galtzen hasiak zirenak, errekuperatu dira.
- Sasien garbiketa, eta beharrezko zuhaitzen inausketa eta entresaka egin da.
- Parke osoko lurra errekuperatu nahian, lurra oxigenatu eta hazia erein da.
- Umeentzako jolas parkea berreskuratzeko pausoak abian dira, eta gimnasia edo kirola egiteko hainbat elementu ere jarri nahi dira.

## Trabajos realizados

Con los trabajos realizados, sólo se pretende recuperar la situación en la que se debería de encontrar el parque.

- Se han arreglado las vallas.
- Se ha acondicionado el suelo en las zonas donde se han colocado mesas y bancos (para que cuando llueva el barro no sea un problema).
- Se han recuperado las escaleras antiguas del parque.
- Se ha quitado la maleza, y se han podado los árboles.
- Con el objetivo de recuperar la tierra de todo el parque y oxigenarla, se ha sembrado semilla.
- Se está trabajando en un proyecto para recuperar el parque infantil y se pretenden colocar accesorios para hacer gimnasia o deporte.



# Liztor beltza
# Avispa negra



Udazken garaia izan ohi da normalean liztor beltzaren habia gehien agertzen edo ikusten den garaia. Uda ondoren, zuhaitzetako hostoak erortzen direnean geratzen dira habia horietako asko jendearen bistan.

Lazkaon, baina, maiatzetik urrira, liztor beltzaren 22 hobi kendu dira. Azken urteetako kopururik altuena da. Eraikinetan, zuhaitzetan eta lur azpian (estolda zulo batean) agertu dira habiak.

22 habia horietatik 18 udaltzainek kendu dituzte, beste hiru kentzeko suhiltzaileei deitu behar izan zaie, altuera oso handian zeudelako habiak. Beste habia bat Gipuzkoako Foru Aldundiko adituek kendu zuten.

Datozen asteak eta hilabeteak oso garrantzitsuak izango dira, orain hasiko baitira habiak nabarmentzen. Norberak habiak kentzea oso arriskutsua izan daiteke, beraz, habiaren bat ikusiz gero heman horren berri.



Normalmente, los nidos de la avispa negra se visualizan en otoño, cuando empiezan a caer las hojas de los árboles.

Pero en Lazkao, ya se han retirado 22 nidos desde mayo a octubre. Es la mayor cantidad de los últimos años. Los nidos se han eliminado en fachadas de edificios, árboles o incluso bajo tierra (en una alcantarilla).

De los 22 nidos retirados 18 han sido eliminados por los municipales, se ha precisado la ayuda de los bomberos para retirar otros tres nidos, y para quitar otro han tenido que intervenir expertos de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En las próximas semanas quedarán a la vista más nidos. Por ello, y por la peligrosidad que tiene retirarlos, se recomienda avisar de la existencia del nido a las autoridades competentes.




Lazkaoko Udalak egindako lehiaketa publikoaren ondoren, Hirutek empresak kudeatuko du datozen bi urteetan Areria aretoko zinema. Hainbat berrikuntza ekarri ditu kudeaketa berriak, lazkaotarrei ahalik eta eskaintza onena ematen jarraitzeko.
Unean uneko estreinaldiak ikusi daitezke astero Arerian, inguruko zinema aretoetan ikusi daitezkeenak, baina herrian bertan. Hilabete bakoitzean zein film ikusi ahalko diren jakiteko hilabetero folletoa ere argitaratzen da, emanaldiei buruzko informazioarekin: ordutegiak, sarreren prezioak...
Hirutek enpresako Ricardo Intxaustik eta Joxi Aldasorok zehaztu dutenez, "oso maila altuko aretoa da Areria, eta eskaintza ere maila berekoa izatea nahi dugu". Horregatik, "ikusi ahalko diren filmeen maila altua izango da, eta sarreren prezioa mantendu egingo da".
Hamar ikustaldiko bonoak ere ikusleen eskura egongo dira. Bonoak bi aukera ematen ditu: hamar saio ezberdinetarako balio dezake, edo saio batera pertsona bat baino gehiago joateko. Helduen emanaldietarako dira bonoak. Nahi dutenek sarrerak Internet bidez ere erosi ahalko dituzte lazkaozinema.sacatuentrada.es helbidean (20 zentimo garestiagoak izango dira).
Emanaldien ordutegiak egokitu dituzte, eta astelehenetako (ikusleen eguna) emanaldiaren ordutegiari buruz galdetegi bat egin nahi dute Hirutek enpresako arduradunek. "Saioa aurreratu nahiko luketen edo ez galdetu nahi diegu, erabiltzaileen iritzia jakin eta eskaintza haien gustuetara egokitzeko".
Eskaintza maila honetan mantentzeko, ordea, beharrezkoa da herritarrek ere maila horretan erantzutea. Horregatik, Lazkaoko Udaletik Areriako zine emanaldietara joatera animatzen ditugu herritarrak, elkarrekin herriko zerbitzuak hobetzeko.

El Ayuntamiento de Lazkao ha adjudicado a la empresa Hirutek la gestión del cine de Areria para los próximos dos años. La nueva gestión ha traido varias novedades, todas dirigidas a seguir ofreciendo el mejor servicio a los lazkaotarras.
Ya se pueden ver en Areria los estrenos más punteros del momento, los mismos que se ven en los grandes cines, pero sin moverse de Lazkao. Además, todos los meses se imprime un folleto con las películas que se podrán ver en Areria, con información sobre las sesiones: horarios, precios....
Según han explicado Ricardo Intxausti y Joxi Aldasoro, de la empresa Hirutek, "Areria es una sala de alto nivel, y debe seguir respondiendo a ese mismo nivel". Por eso, "además de ofrecer los estrenos del momento, se mantienen los precios de las entradas". También se podrá seguir obteniendo el bono de diez sesiones. Los bonos se podrá utilizar de diferentes maneras: se podrán ver 10 películas

*"Hilabete bakoitzean Arerian zein film ikusi ahalko den jakiteko folletoa argitaratzen da, informazio osagarriarekin: ordutegiak, sarreren prezioak...*

*"Hamar ikustaldiko bonoak eskuratu daitezke, eta nahi duenak Internet bidez ere eskuratu ditzake sarrerak*



# KUDEAKETA BERRIA ZINEAN

# NUEVA GESTIÓN EN EL CINE

diferentes o podrán acceder al cine diversas personas para ver una misma película. Los que así lo quieran, también podrán comprar las entradas por Internet en la dirección lazkaozinema.sacatuentrada.es (serán 20 céntimos más caras).
Hirutek ha adecuado los horarios de varias sesiones, y quiere realizar una encuesta entre los usuarios entorno al horario de los lunes (día del espectador). "Queremos saber si están a gusto con el horario actual, para adecuar la oferta".
Para poder ofrecer un buen servicio y la oferta actual de Areria, es necesario que la ciudadanía responda de manera positiva, y acuda a cine en Lazkao. Por eso, animamos a todos los lazkaotarras a hacer uso del cine, para así, conjuntamente, ir mejorando los servicios que se ofrecen en Lazkao.

> *Se pueden obtener bonos para diéz sesiones, y los que quieran también pueden obtener las entradas mediante Internet*

---

*ZINEMARAKO BONOAK ETA SARRERAK ESKURATU NAHI DITUZU? BETE ONDOKO DATUAK, MOZTU ORRIA EDO JARRI BESTE ORRI BATEAN DATU HORIEK, ETA ERAMAN ARERIARA HURRENGO BI ASTEETAKO SAIOREN BATERA. HELDUENTZAKO BI BONO ZOZKATUKO DIRA, ETA HAURRENTZAKO BANAKAKO 10 SARRERA. ZOZKETA AZAROAREN 6AN. IRABAZLEEN IZENAK WWW.LAZKAO.EUS WEBGUNEAN.*

*¿QUIERES CONSEGUIR BONOS Y ENTRADAS PARA EL CINE? RELLENA LOS DATOS, RECORTA LA HOJA O ANÓTALOS EN OTRA HOJA, Y ENTRÉGALA EN ARERIA EN ALGUNA DE LAS SESIONES DE CINE DE LAS DOS PRÓXIMAS SESIONES. SE SORTEARÁN DOS BONOS PARA ADULTOS Y 10 ENTRADAS INDIVIDUALES PARA NIÑOS/AS. EL SORTEO SERÁ EL 6 DE NOVIEMBRE. LOS NOMBRES DE LOS GANADORES SE PUBLICARÁN EN LA PÁGINA WWW.LAZKAO.EUS*

**IZEN-ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS:**

..............................................................................

**TELEFONOA / TELÉFONO:**

..............................................................................

**HERRIA / MUNICIPIO:**

..............................................................................

# ZENBATEKOA DA EUSKARAREN ERABILERA LAZKAOKO KALEETAN?

# ¿CUÁNTO SE USA EL EUSKARA EN LAS CALLES DE LAZKAO?

Soziolinguistika Klusterraren eskutik, Lazkaoko kaleetan hizkuntza erabileraren neurketa egin da. Horretarako, 1.622 elkarrizketetan horien solaskide izan diren 4.518 hiztunek osatu dute azterketa honen lagina.
Erabilera datuak hiztunen ezaugarriekin ere aztertu dira, hala, erabilera zenbatekoa den jakiteaz gain, hiru aztergai hauek euskararen erabileran duten eragina ikusi da: sexua, haurren presentzia inguruan, eta neurtu diren taldeen adin-osaketa.
Honakoak dira daturik esanguratsuenak:

De la mano del Clúster de Sociolingüística, se ha realizado un estudio para medir el uso del euskara en las calles de Lazkao. La muestra de este estudio la han formado 1.622 conversaciones de los 4.518 hablantes que han participado en ellas.
Además de conocer cuáles son los datos de uso, se han analizado estos datos en relación con las características de quienes han participado en esas conversaciones. Se han tenido en cuenta tres factores: sexo, presencia de niños y niñas alrededor, y grupo de edad al que pertenecen. Los principales datos obtenidos son los siguientes:

- Elkarrizketen %44,8 euskaraz dira, %53,3 gaztelaniaz eta %1,9, berriz, beste hizkuntza batzuetan.
- Erabilera hori asko den edo gutxi den hausnartzeko, ezinbestekoa da beste bi datu aintzat hartzea: herrian euskaraz hitz egiteko gai direnen proportzioa eta euskaldun-kopuru horretatik estatistikoki "espero daitekeen erabilera".
- Kalkuluak eginda, hortaz, Lazkaoko kaleetan bertako biztanleak bakarrik baleude, beraien artean hitz egiteko zoriz elkartuko balira, euskaraz ez dakiten kideren bateko taldeetan beti beste hizkuntza bat erabiliko balitz, eta euskaldunez osatutako taldeetan beti euskaraz hitz egingo balitz, kaleko elkarrizketetan %34,2koa litzateke euskararen erabilera.
- Beraz, euskararen erabilera, estatistikoki espero daitekeena baino zertxobait altuagoa da.

- El 44,8 % de las conversaciones han sido en euskara, el 53,3% en castellano, y el 1,9% en otros idiomas.
- Para valorar estos datos y saber si es mucho o poco el uso que se hace, es preciso tener en cuenta otros dos aspectos: la proporción de los vasco-parlantes respecto al total de la población; y el uso que estadísticamente pueda esperarse por parte de esas personas vasco-parlantes.
- Suponiendo que, solamente participan los habitantes de Lazkao, en el supuesto que si hay en la conversación una persona no vasco-parlante, el idioma elegido no es el euskara, y en caso de que los que participen sean vasco-parlantes y la lengua de uso sea el euskera, el uso del euskara estadísticamente debiera de ser del 34,2%.
- Por lo tanto, se puede decir que el uso del euskara es algo superior a lo que estadísticamente pudiera esperarse.




| | Kop. | % |
|---|---|---|
| Euskaraz | 2.022 | %44,8 |
| Gaztelaniaz | 2.410 | %53,3 |
| Beste hizkuntzetan | 86 | %1,9 |
| GUZTIRA | 4.518 | %100 |




| | Kop. | % |
|---|---|---|
| Euskaldunak | 3.432 | %66,67 |
| Ia euskaldunak | 707 | %13,32 |
| Erdaldunak | 1.168 | %22,01 |
| GUZTIRA | 5.307 | %100 |

## Eustat-en datuak / Datos de Eustat




| | % |
|---|---|
| Euskaldunen proportzioa (2016). | %64,7 |
| Espero daitekeen erabilera (2016) | %34,23 |
| Kaleko erabilera behatua (2018) | %44,8 |




| | Kaleko erabilera (2016-2018) | Euskaldunen proportzioa (2016) | Espero daitekeen erabilera (2016) |
|---|---|---|---|
| Euskal Herria | %12,6 | %27,6 | %5,1 |
| Gipuzkoa | %31,1 | %53,3 | %21,8 |
| Lazkao | %44,8 | %64,7 | %34,2 |

Azterketak bestelako ondorio batzuk ere utzi ditu:

- Emakumezkoek gizonezkoek baino zertxobait gehiago hitz egiten dute euskaraz: gizonezkoen erabilera %44koa da eta emakumezkoena %45,4koa.

El estudio también deja otras conclusiones:

- Las mujeres utilizan el euskara en sus convesaciones algo más que los hombres: el uso entre hombres es del 44% y entre las mujeres del 45,4%




| | Emakumezkoak | Gizonezkoak |
|---|---|---|
| Euskaraz | %45,4 | %44 |
| Gaztelaniaz | %52,1 | %54,7 |
| Beste hizkuntzetan | %2,5 | %1,2 |
| GUZTIRA | %100 | %100 |

- Haurrak bakarrik daudenean (nagusirik gabe) %81,9 da euskarazko erabilera. Nagusiak euren artean ari direnean (haurrik gabe), %27an darabilte euskara. Haurrek eta helduek osatutako taldeetan, berriz, %54,4koa da erabilera.

- Haurrez eta nagusiez osatutako taldeetan, haurra hitz egiten ari bada, erabilera altuagoa da (%62,8) nagusia hitz egiten ari denean baino (%47).

- 2-14 urte bitarteko haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (%69). Euskara gutxien erabiltzen dutenak, berriz, adinekoak, elkarrizketen %28 izan baitira euskaraz. Gazteen artean erabilera %67koa izan da eta helduen artean %32,5ekoa.

- Cuando en la conversación sólo hay niños y niñas (sin adultos), el uso del euskara es del 81,9%. Cuando la conversación es entre adultos (sin niños/as), el uso es del 27%. En los grupos donde hay adultos y niños/as, el uso del euskara es del 54,4%.

- En grupos compuestos por adultos y niños/as, si el parlante es niño/a, el uso del euskara es mayor (62,8%) que cuando el parlante es un adulto (47%).

- Los niños/as de entre 2 y 14 años son los que más utilizan el euskara (69%). En cambio, los que menos euskera utilizan son los adultos: el 28% de las conversaciones han sido en euskera. El uso entre los jóvenes ha sido del 67% y entre los adultos del 32,5%.




| | Haurrak bakarrik | Nagusiak bakarrik | Haurrak eta nagusiak, nahasian | Haurra hitz egiten | Nagusia hitz egiten |
|---|---|---|---|---|---|
| Euskaraz | %81,9 | %27,0 | %54,4 | %62,8 | %47,0 |
| Gaztelaniaz | %18,1 | %72,3 | %41,0 | %32,9 | %48,2 |
| Beste hizkuntzetan | %0,0 | %0,8 | %4,6 | %4,3 | %4,8 |
| GUZTIRA | %100 | %100 | %100 | %100 | %100 |



# BIDEGORRI ETA OINEZKOEN BIDEAK

# BIDEGORRIS E ITINERARIOS PEATONALES







## Garraio modu jasangarria, ariketa fisikoa eta osasuna.

Momentu honetan, herriko bidegorri sarea eta oinezkoentzako paseo guneak berritzeko lau obra daude martxan.

Gurutze 1-6 parean bidegorria berritzeko lanak egin ondoren, eta San Inazioko zubia zabalduta, Areso kaleko bidegorriari jarraipena emateko lanak egiten ari dira une honetan.

Modu berean, San Inazion ere jardungo da, Agauntza ibairen parean. Egungo errepidea oinezkoentzako gune izatera pasako da eta bidegorri bat ere egingo da.

Hirigoien 4-10 artean ere egingo dira lanak, bidegorria plazara arte luzatu eta Zubierrekan hasten den zatiari Hirigoien kalean barrena jarraipena emateko.

Gurutze 6 eta 10 arteko atarien parean doan bidegorri zatian margotze eta seinaleztatze lanak ere egiten ari dira, errekaren alboan.

Lanean ari diren zatiek eta Antzaldeko bidegorri zati berriak, herritar guztien eskura dagoen Lazkaoko bidegorri sarea osatzen dute.

Asfaltoa baino gehiago diren eremuak dira, autoa alde batera utzi eta bizikletaren aldeko hautua egiteko aukera bat dira. Osasun hobe baten alde ariketa fisikoa egiteko eremuak dira.

## Un modo de transporte sostenible, ejercicio físico y salud.

En este momento se están abordando cuatro nuevas actuaciones para la mejora de la red de bidegorris y de los paseos peatonales de Lazkao.

Tras las obras de renovación del bidegorri en Gurutze 1-6, y la ampliación del puente de San Inazio con el inicio del bidegorri en Areso, en este momento se están ejecutando las obras para la continuidad del bidegorri en la calle Areso.

De igual modo, se va a proceder junto al rio Agauntza en San Inazio. El actual vial se convertirá en paseo petonal, y se habilitará un bidegorri.

Con la actuación de la calle Hirigoien 4-10, se dará continuidad hasta la plaza, al eje de bidegorri que arranca en Zubierreka y transcurre por la calle Hirigoien.

También se han realizado trabajos de acondicionamiento con pintura y señalización en el bidegorri que transcurre entre Gurutze 6 y 10 por el lado del rio.

Estas adecuaciones y mejoras en la red existente de bidegorris, junto con el nuevo bidegorri abierto desde Antzalde hasta Hiribarren, conforman una red a disposición de todos.

Son algo más que asfalto, son una oportunidad para aparcar el coche y apostar por la bicicleta. Un espacio para hacer ejercicio o pasear, en pro de una mejor salud.

# GAZTELEKUA IREKITA DAGO!

Dagoeneko martxan da Lazkaoko Gaztelekua, eta larunbatetan eta igandetan, 16:00etatik 20:00etara egongo da irekita. Festa batekin eman zioten hasiera aurtengo denboraldiari urriaren 20an.
Gaztelekua 12 eta 16 urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduta dago, eta aisialdi zerbitzua eskaintzen da bertan. Begiraleek antolatutako eta gidatutako ekintzen bidez besteekiko errespetua, berdintasuna, taldean aritzea, parte hartzea... eta antzeko baloreak lantzen dituzte bertaratzen diren gazteek. Arlo ezberdinekin lotura duten ekintzak, jolasak eta jarduerak egiten dituzte, eta tartean irteerak ere bai.
Gaztelekua kultur etxeko beheko solairuan dago, eta ekintza ezberdinak egiteko prestatua dago. Gaztelakuko ekintzetan parte hartu nahi baduzu, bertara gerturatu besterik ez dugu egin behar, zehaztutako egunetan eta ordutegian.
Animatu eta gerturatu Gaztelekura!




# ¡EL GAZTELEKU YA ESTA EN MARCHA!

El Gazteleku de Lazkao ya está en marcha. El 20 octubre celebraron la fiesta de apertura y en adelante estará abierto para los jóvenes los sábados y domingos, de 16:00 a 20:00.
El Gazteleku es un espacio de ocio para jóvenes de entre 12 y 16 años. Dirigido por los monitores, trabajan valores como el respeto, la diversidad, la igualdad, la participación... Para lo cual realizan actividades de todo tipo, como juegos, sesiones de cine, talleres... y de vez en cuando, también salidas.
El Gazteleku está ubicado en la casa de cultura y está preparado para poder realizar diferentes actividades. Si quieres participar en las actividades que organizan, sólo tienes que acercarte al Gazteleku en los días y en las horas mencionadas.
¡Anímate y acércate al Gazteleku!

## Gabonetako aisia zerbitzua

Aurtengo Gabonetan ere asialdi zerbitzu berezia eskainiko du Lazkaoko Udalak. Zerbitzua abenduaren 26, 27, eta 28an eta urtarrilaren 2an, 3an eta 4an eskainiko da, 10:00etatik 13:00etara. Izen ematea azaroaren 12tik 25era izango da. Izena eman nahi dutenek horretara bideratutako eskaera horria bete eta kiroldegira eraman beharko dute. Haur bakoitzeko ordaindu beharreko kuota 18,30 eurokoa izango da. Aisialdi zerbitzua 2008 eta 2015 urte arteko umeei zuzenduta egongo da (HH3-LH6).
Gaztelekua ere irekita egongo da egun horietan, 12 eta 16 urte bitartekoentzat.

## Servicio de tiempo libre en Navidades

Un año más, el Ayuntamiento de Lazkao ofrecerá servicio de tiempo libre el periodo de Navidades. Más concretamente el 26, 27 y 28 de diciembre y el 2, 3 y 4 de enero, de 10:00 a 13:00. La inscripción será del 12 al 25 de noviembre, rellenando la correspondiente hoja y entregándola en el polideportivo. La cuota por cada niño/a será de 18,30 euros. El servicio está dirigido a niños y niñas nacidos entre 2008 y 2015 (EI3-EP6).
El Gazteleku también estará abierto esos días, dirigido a jóvenes de entre 12 y 16 años.

# LABURRAK



### HILERRIAN BERRITZE LANAK

Hilerriko kaperaren eta inguruko eraikinen konpontze lanak aurrera doaz. Hormetako zartadurak konpondu eta paretak txukundu ondoren, hormak margotu egingo dira.

### TRABAJOS DE MEJORA EN EL CEMENTERIO

Se están llevando a cabo trabajos para arreglar las fachadas de la capilla del cementerio y sus aledaños. Tras cerrar grietas y recuperar la fachada, se acabará con un pintado de los mismos.

**Aurrekontua / Presupuesto: 15.573€**



### ATAUNERAKO OINEZKO BIDEAN LANAK

Gune batzuek lokazten zirela kontuan hartu eta Ibilbidean zehar euri urak jaso eta bideratzeko lanak egin dira. Hesi eta banku inguruak ere txukunduko dira.

### OBRAS EN EL CAMICO HACIA ATAUN

Se han realizado actuaciones para mejorar la recogida y el encauzamiento de las aguas superficiales. También se quiere realizar una renovación en el vallado y en el entorno de los bancos.

**Aurrekontua / Presupuesto: 2.557€**



### HILERRIRA OINEZKO BIDEA

Bariante azpiko oinezkoen pasotik hilerriraino doan pistan hobekuntza lanak egin dira. Euri urak jaso eta zorua berritu da.

Se han hecho trabajos de mejora en la pista que va desde el paso inferior de la variante hasta el cementerio. Se han recogido las aguas y se ha renovado el firme.

**Aurrekontua / Presupuesto: 11.041€**



### ANTZALDEKO PARKEAN EGOKITZE LANAK

Urak jasotzeko drenajea berritu, eta zoruak zuen egoera kontutan hartuta, hormigoizko zoru berriarekin txukundu bat eman zaio inguruari.

### TRABAJOS DE MEJORA EN EL PARQUE ANTZALDE

Se ha actuado en el drenaje para la recogida de aguas y se ha renovado el firme con una nueva solera de hormigón.

**Aurrekontua / Presupuesto: 16.443 €**

### 2019KO TASAK ETA ZERGAK

Lazkaoko Udalak zehaztu ditu 2019rako zergak eta tasak. Zergei dagokionez, irizpide orokorra mantentzearena izan da. Ez da aldaketarik izango, eta bere horretan mantenduko dira. Salbuespenak bi dira: plusbali edo gain balioen zerga (10etik 8ra jatsiko da) eta ibilgailuen zerga (KPI aplikatuko da).
Tasen kasuan, irizpide orokorra KPI-aren igoera da. Salbuespena, zaborrengatik ordaintzen den tasa izango da. Zaborren bilketa zerbitzuak dituen kostuen eta sarreren arteko desorekak sortzen duen defizita murrizteko helburuarekin, tasa honi %5eko igoera aplikatuko zaio. Modu honetara 2019. urteari begira, izaniko diru sarrerekin, zerbitzuak duen kostuaren %93a estaltzera iritsi ahal izatea espero da.

### TASAS E IMPUESTOS DE 2019

El Ayuntamiento de Lazkao ha aprobado las tasas y los impuestos para el 2019. El criterio establecido para los impuestos ha sido el de mantener las cifras. Habrá dos excepciones: el impuesto de plusvalía (bajará de 10 a 8) y el impuesto sobre vehículos (se aplicará el IPC).
En el caso de las tasas, el criterio a seguir ha sido la subida del IPC (IPC=2,2). En este caso, la excepción será el impuesto de las basuras. Con el objetivo de reducir el déficit que surge entre el coste de la recogida de basuras y las entradas, a esta tasa se le aplicará una subida del 5%. Así, de cara a 2019, se prevé que con los ingresos obtenidos se cubra el 93% de todo el coste.

### KIROL TALDEEI LAGUNTZAK

Lazkaoko Udalak zehaztu ditu herriko kirol taldeei emango zaien diru laguntzak:

### AYUDAS A GRUPOS DEPORTIVOS

El Ayuntamiento de Lazkao ya ha definido las ayudas que otorgará a las asociaciones deportivas:

| Taldea / Grupo | Kopurua / Cantidad |
|---|---|
| LKE – FUTBOL TALDEA | 11.911€ |
| LAPKE | 1.697€ |
| ORDIZIA IGERIKETA TALDEA | 450€ |
| TXINDOKI ATLETISMO TALDEA | 671€ |
| AMALUR MENDI TALDEA | 877€ |
| TXIRRINDULARI ELKARTEA | 632€ |
| ANTZAR KORRIKALARIAK TALDEA | 1.224€ |
| GOIERRI GORRI FUTBOL TALEDA | 3.538€ |



### IPARRA-HEGOA PROGRAMAKO LAGUNTZAK

Lazkaoko Udalak zehaztu ditu Iparra-Hegoa programaren barruan aurten emango dituen diru laguntzak.
Honako elkarteek jasoko dute laguntza:

### AYUDAS DEL PROGRAMA IPARRA-HEGOA

El Ayuntamiento de Lazkao ya ha especificado las ayudas que otorgará dentro del programa Iparra-Hegoa. Estas son las asociaciones que recibirán la ayuda:

| Elkartea / Asociación | Kopurua / Cantidad |
|---|---|
| Mundu Solidarioa Helburu | 7.500€ |
| Doa Denok Osasunaren Alde | 10.000€ |
| ONG Taupadak | 2.000€ |
| Herriak Elkarlanean | 7.500€ |
| Asociación de cooperación al desarrollo Bilbotik Perura | 1.250€ |
| Donostiako elizbarrutiko misio ordezkaritza | 6.130€ |
| Lankidetzarako ingeniaritza | 3.000€ |
| Bakerako lankidetza batzarra | 3.610€ |
| Etiopia-Utopia | 2.550€ |
| Salvamento Maritimo Humanitario eta Proem-Aid | 5.000€ |



### TRAKTOREEN IAT-A

Aurten 11 traktorek pasa dute IAT Ibilgailuen Azterketa Teknikoa Lazkaon. Ispiluak, intermitenteak, seinaleztapen argia, bastidore zenbakia eta erruedak zein egoeratan dauden aztertzen dute azterketan, besteak beste. 8 eta 16 urte bitarteko traktoreek bi urtez behin egin behar dute azterketa, eta 16 urtetik gorakoek urtero. Datorren urtean Lazkaon erroldatuta dauden 10 traktorek egin beharko dute azterketa.

### ITV DE TRACTORES

Este año han pasado la ITV o Inspección Técnica de Vehículos un total de 11 tractores. Los inspectores han revisado espejos, intermitentes, señales luminosas, número de bastidor y ruedas, entre otras cosas. Los tractores que tengan entre 8 y 16 años deben pasar la inspección cada dos años, y los que tengan más de 16 años anualmente. El año que viene tendrán que pasar la inspección un total de 10 tractores censados en Lazkao.



### GURUTZEKO GARAJEAK

Gurutze 1-2 inguruan egingo diren lurrazpiko garajeen prozedurak aurrera jarraitzen du. Erosteko interesa aurkeztu zutenen artean zozketa egin da.

### GARAJES DE GURUTZE

La construcción de garajes subterráneos en el ámbito de Gurutze 1-2 sigue su proceso. Ya se ha realizado el sorteo entre quienes han mostrado interés para adquirir algún garaje.

# Ekintzailetzari buruzko jardunaldia
# Jornada sobre emprendimiento

*Urriak 30, asteartea, 09:30ean hasita, udaletxean*

Lazkaoko Udalak 2015-2019 kudeaketa planean definituta dituen helburu estrategikoen artean dago herriko ekonomia jarduera eta enplegua sustatzea.

Horretarako, auto-enpelgua eta ekintzailetza aukerak herritarren artean sustatzea garrantzizkoa da udalarentzat. Hori dela eta, Lazkaoko Udalak eta Goieki Goierriko Garapen Agentziak antolatuta, ekintzaileei zuzendutako ikastaroa egingo da bigarrenez Lazkaon. Enpresa berri bat sortzerakoan kontuan izan behar diren hainbat alderdi eta jarraitu beharreko pausoak zein diren landuko dira jardunaldian. Iragest Cogerencia enpresako Ignacio Ruiz de Alegria enpresa kudeaketan adituak gidatuko du saioa.

Ikastaroak bi helburu ditu: parte hartzaileek ikusi eta esperimentatu dezatela ekintzailetasuna ere lan munduan txertatzeko aukera interesgarria eta aberasgarria dela, eta norberaren gaitasunak eta indarrak negozio ideia batera bideratu daitezkeela ikustea.

*30 de octubre, martes, a partir de las 09:30, en el Ayuntamiento*

Dentro de los objetivos estratégicos del plan de gestión 2015-2019 del Ayuntamiento de Lazkao, uno de los objetivos es impulsar el empleo y la economía local. Para el Ayuntamiento es importante impulsar el autoempleo y el emprendimiento entre la ciudadanía.

Es por eso que el Ayuntamiento de Lazkao y la Agencia de Desarrollo Goieki han organizado la segunda jornada sobre emprendimiento dirigida a fomentar autoempleo. En la jornada se explicarán los principales aspectos a tener en cuenta y los pasos a dar en el proceso de creación de una nueva empresa. El encargado de guiar la sesión será el experto en gestión de empresas Ignacio Ruíz de Alegría, de la empresa Iragest Cogerencia.

El curso persigue dos objetivos claros. Por una parte, hacer ver y experimentar a los participantes del taller que el emprendizaje es una opción tan válida y factible para su futuro laboral como el trabajo por cuenta ajena. Por otro lado, poner en relieve las potencialidades de los asistentes enfocando dichas fortalezas hacia una idea emprendedora.

# LAZKAO TXIKI kontu kantari




Azken urteetan bezala, aurten hirugarren aldiz, herriko dendak eta tabernak urteko garai honetan tokiko merkataritza dinamizatu eta sustatzeko egiten duten udazkeneko kanpaina martxan dago. Aurten, gainera, "Lazkao Txiki Kontu Kantari" izena eman zaio, bertsolaria hil zela 25. urteurrena baita. Kanpainaren barruan, nahi duenak oholtzara igo eta Lazkao Txiki gogoraraziko duen bertso, abesti, ipuin, kontakizun, pasadizo edo txiste bat kontatzeko aukera izango du.

Parte hartzen duten guztiek kanpainarako diseinatu den kamiseta bat jasoko dute opari. Kanpainan parte hartzen duten 71 establezimendutan erabiltzeko opari baleak ere zozkatuko dira. Kanpainan parte hartzen duten establezimendu horietan bertan eman behar da izena. Hurrengo saioak urriaren 26an eta 31n izango dira.

Lazkaoko Udala eta Lazkaon elkartea dira kanpainaren antolatzaileak, eta San Benito ikastolaren, Lazkao Txiki Musika Eskolaren eta Goierriko Bertso Elkartearen laguntza jaso dute.

Kanpainaren helburua herriko merkataritza eta ostalaritza establezimenduak sustatzea da, herria girotuz eta kalea animatuz. Lazkaoko Udalaren helburu nagusietako bat da herriko merkataritza eta ostalaritza indartzea, eta horregatik, azken urteetan hainbat ekintza antolatu dira, urteko garai ezberdinetan.

Tal y como lo han hecho en los tres últimos años, los comerciantes y hosteleros del municipio han puesto en marcha la campaña de otoño que tiene como objetivo dinamizar e impulsar el comercio y la hostelería local. Este año además, la campaña hace un giño al 25 aniversario de la muerte del bertsolari Lazkao Txiki.

Por ello, la campaña "Lazkao Txiki Kontu Kantari" consiste en recordar al bertsolari lazkaotarra mediante un bertso, una canción, un cuento, chiste o relato. Todos los participantes recibirán una camiseta exclusiva de la campaña y entrarán en el sorteo de vales de compra para utilizarlos en los 71 comercios, bares y restaurantes de Lazkao. Para participar se puede inscribir en esos mismos establecimientos.

Los organizadores de la campaña son el Ayuntamiento de Lazkao, la asociación Lazkaon, y han colaborado San Benito Ikastola, Lazkao Txiki Musika Eskola y Goierriko Bertso Elkartea.

El objetivo de la campaña es impulsar el comercio y la hostelería del municipio. Uno de los objetivos estratégicos del Ayuntamiento de Lazkao es sustentar el sector económico del municipio, para lo cual ha organizado varias campañas en los últimos años.

# EUSKARALDIA




Hilabete eskas geratzen da Euskaraldia egitasmorako. Dagoeneko eman da jakitera zein den Lazkaoko "Hamaikakoa", eta Ahobizi edo Belarriprest izateko izen emateak ere martxa onean doaz.
Oraindik, baina, badago izena emateko aukera. Udaletxean, kiroldegian edo Gerrikon daude izena emateko orriak, eta kalean jartzen diren mahaietan ere eman daiteke izena. Gainerakoan, izenematea.euskaraldia.eus helbidean ere eman daiteke izena.
Gogoratu, azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingo dela Euskaraldia, eta bi modutan parte hartu daitekeela: Ahobizi edo Belarriprest figura hartuta.
Lazkaon abenduaren 1ean egingo den euskal kantarien kontzertua ere Euskaraldiaren eta Euskararen nazioarteko egunaren harira antolatu da. Gontzal Mendibil, Gorka Knör eta Urko Arerian arituko dira, 20:00etatik aurrera.

Apenas queda un mes para que se celebre la Euskaraldia. Ya se ha presentado el "Hamaikakoa" de Lazkao, y la fase de inscripción para participar como Ahobizi o Belarriprest está en marcha.
Si todavía no te has inscrito, lo puedes hacer rellenando la hoja correspondiente en el ayuntamiento, en el polideportivo o en Gerriko, y depositando la hoja en las urnas colocadas para ello. También puedes apuntarte en las mesas que se colocan en el municipio. Otra opción es hacerlo mediante la página de la iniciativa, en la dirección izenematea.euskaraldia.eus.
Recordad que la Euskaraldia se celebra del 23 de noviembre al 3 de diciembre, y se puede participar de dos maneras: mediante la figura Ahobizi o la figura Belarriprest.
El concierto que los cantantes vascos Gontzal Mendibil, Gorka Knörr y Urko ofrecerán en Lazkao el 1 de diciembre se ha organizado como colofón del Euskaraldia y el día internacional del Euskara. El concierto será en Areria, a las 20:00.




